

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar legebiltzar taldeko bozeramaile **Aintzane Ezenarro Egurbidek**, indarrean den araudiaren babesean, **OSOKO ZUZENKETA** aurkezten dio Autonomia Erkidegoko 2011ko Aurrekontu Orokorren Lege Proiektuari, berriro Jaurlaritzara itzultzea eskatuz.

### Aurrekontu murriztaileak

Eusko Jaurlaritzak 2011 urterako aurkeztu duen aurrekontu-proiektuaren ezaugarri nagusia duen joera murriztailea da. Politika aktiboen lekualdatzea (472 milioi) kontuan hartzen ez badugu, gastu publikoa zenbaki gordinetan 10.077,5 milioian dago, iaz baino %2,3 gutxiago. Murrizketak sail guztietan gertatzen dira (salbuespen birekin: Enplegua eta Gizarte Gaiak, eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioak sailak —politika aktiboen eskumenagatik eta AHTri emandako bultzadagatik, hurrenez hurren— eta, horren ondorioz, Administrazioaren esku dauden berme eta zerbitzu publikoen kalterako eraginak oso nabariak dira: Hezkuntza Sailaren jaitsiera %3,3koa da, Osasunean %3,5koa eta Enplegua eta Gizarte Gaietan, berriz, enplegu politika aktiboak kenduta, %15ekoa. Inbertsioen atalean ere murrizketa handia da, %6,1 gutxiago. Gainera, Ekonomia eta Ogasun sailburuak iragarria du 2011rako dituen aurreikuspenak bete ez, —eta aurreikuspenok oso dira boluntarista: BPG %1,4 gehitzea eta langabezia tasa %0,4 jaiste— eta gastua igotzen bada, beste murrizketa batzuk jasotzen dituen neurri-sorta dagoeneko prestatuta duela.

Merkatuen presiopean, zorra eta defizit publikoa jaisteko eta kontrolatzeko Europak eta Estatu espainiarrak hartutako bide berari jarraitzea erabaki du Jaurlaritzak, gure egoeraren berezitasunak kontuan hartu gabe, Estatu mailan diseinatu eta indarrean jarri diren neurrien jarraipen hutsa egitea erabaki du: langileen soldatak jaiste, zerbitzu publikoak ahultzea eta horietan behin-behinekotasuna bultzatzea, arlo pribatuari ateak zabaltzea —batez ere osasun arloan— gizarte-ongizatea eta -babesa praktikan murriztea... Azken finean, defizitaren aurkako politikak lehenestea erabaki du, krisialdi garaian ekonomia suspertzeko, enplegua sortzeko eta gizarte gastua indartzeko neurriak bultzatu beharrean. Erabakia politikoa da, alderdi politiko nagusiek, PSOEek eta EAJk Madrilen eta PSEk eta PPK Euskadin, adostutakoa.

Horren ondorioz, garapen ekonomiko esanguratsua gertatzea eta enplegu egonkorra sortzea ia ezinezkoa da. Hazkundea motela edo negatiboa denean, eta langabezi tasak igotzen direnean (egun 132.000 baino gehiago dira, eta horietako % 36k ez du inolako saririk jasotzen), gobernuen eginkizuna egoera orekatzeko ekimen zehatzak hartzea da, batez ere inbertsio, zerbitzu publiko edo gastu sozialaren arloetan gastua handituz.

Aldiz, sektore publiko osoa estutzeko neurri-sorta hartzea, logikatik kanpo egoteaz gain, garapena trabatu egiten du, ez du enplegurik sortzen eta krisialdiaren alde gogorrenak pairatzen ari direnak babesik gabe uzten ditu. Europako beste herrialdeekin alderatuz gero, EAEko gizarte gastua oso baxua da eta, beraz, hori handitzeko eta euren baldintzak hobetzeko tarte zabala dago oraindino.

Noranzkoa aldatzeko bide zuzen eta eraginkorra zerga politikan aldaketa nabarmenak egitea da. Hala ere, adierazpen hutsez harago, arlo horretan ere PSE eta EAJren arteko aliantza estrategikoa indarrean dago, sinaturiko egonkortasun hitzarmenean edo Zerga Koordinaziorako Organoak hartzen dituen erabakietan nabarmen ikusten den moduan. Errenta altuenak edo kapitala zergapetzeko borondatea izan beharrean, edo zerga-iruzurraren aurka borrokatzeko (EAEn BPGren %15-20koa da, 10.000 milioi ingurukoa) neurri tinkoak adostu beharrean, egungo krisi egoera konponbidean jartzeko erabat ez-nahikoak diren beste neurri batzuk hartu dituzte, langabetuei edo pentsiodunei egindako kenketa urria kasu (15 milioi guztira, pentsiodun bakoitzeko 150 euro). Gauzak horrela, azken urteotan izandako atzerapausoen ondorioz, EAEn daukagun presio fiskala oso baxua da Europako batez bestekoarekin erkatuz gero (6 puntu gutxiago EB-27rekin alderatuz gero). Eta horren guztiaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak EAeko ekonomian duen pisu erlatiboa berriro ere jaitsi da, %15,6tik %14,4ra pasatuz.

### **Murrizketak arloz arlo**

**Inbertsio gutxiagi:** hitzez harago, Jaurlaritzak inbertsio errealean alde egiten duen apustua eta ahalegina oso urria da. Inbertsioak, guztira, 598,7 milioi dira (iaz baino %6,1 gutxiago) eta horietako ia erdia AHT finantzatzeko erabiliko da (298,6 milioi). Horrela, ongizatea hobetzera zuzendutako inbertsioak oso eskasak dira, beharizan sozialaren eta zerbitzuen kalitatearen kalterako. Adibide batzuk jartzearren, AHT ez diren beste trenbideetarako inbertsioetarako (metro barne) 18,8 milioi, etxebizitzarako 32,9 milioi, edo Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketarako 28,8 milioi euro. Era berean, Osakidetzaren baliabideen mapa aurkeztu zenean agerian geratu zen zenbait barrutitan hainbat azpiegitura beharrezkoak direla, baina aurrekontuetan ez dira jasotzen. Horren adibide dira subakutuen arretan Bizkaiko Ezkerraldean zein Barruko eskualdeetan beharrezkoak ikusten ziren azpiegiturak. 2010ean foru aldundien diru-bilketan izandako nolabaiteko hobekuntzaren ondorioz lorturiko 249 milioiek edo zuzenketen bidez adostutakoek egoera samurtu balezakete ere, orokorrean, krisialdi garaian funtsezkoa eta estrategikoa izan behar zuen atalak ez du gehiagorako ematen.

**Erasoa langile publikoei:** Estatuak markaturiko irizpideei jarraituz, 2011rako administrazioaren menpe diharduten langileen soldatak izoztu egingo dira. 2010ean soldaten izozketa urtearen erdialdean gertatu zenez, funtzio publikoko langileek datorren urtean izango duten galera handiagoa izango da. Gainera, ezin da ahaztu 2009ko azaroan Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorrean hiru sindikatu garrantzitsurekin (ELA, CCOO, UGT) lorturiko akordioa ezerezean geratu dela, eta hori oso larria da.

Beste alde batetik, indarrean dagoen Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren Jarraibidearen arabera, gastu publikoa murrizteko asmoz hainbat neurri martxan jarri dira, hala nola, 6 hilabetetik beherako ordezkapenik ez baimentzea, zeregin-pilaketa dela eta kontratu berririk ez egitea, ezinbestekoak ez diren lanpostuak amortizatzea, plaza berririk ez sortzea... Funtzio Publikorako propio egindako jarraibide hori, ñabardura batzuekin, beste sail batzuetan aplikatzen ari da, hezkuntzan edo osasunean, kasurako. Gehiengo sindikalak salatu duenez, neurri horiek, sektore publikoaren aurkako eraso zuzena izateaz gain, kalitatezko milaka lanpostu galtzea eta zerbitzu publikoaren kalitatearen gainbehera dakartzate.

**Gizarte babesean eznahikotasuna:** langabezia, pobrezia eta gizarte bazterketaren kontrako borrokaren bilakaera kezagarriaren aurrean, Jaurlaritzak arlo horretan ere murrizketak ezarri ditu, apalak badira ere. Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten lagunen kopurua urtebetean %14 igo den arren (2009ko urritik 2010eko urrira), iaz baino 1,4 milioi gutxiago daude aurreikusita (280 milioi). Gainera, aurreko urteetan jarritako baldintza zorrotzak mantentzen dira, hala nola, etxebizitza bakoitzean 2 laguntza jasotzeko muga, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren %88a jasotzeko muga edo, laguntzarako eskubidea izateko gutxieneko adina 23 urtean jartzekoa. Etxebizitzarako Prestazio Osagarrian ere murrizketa jasotzen da, 1,4 milioikoa (42 milioi daude). Datu oso esanguratsua etxebizitzak alokairuan lortzeko dauden zailtasun ekonomikoak ikusita.

Gizarte-larrialdietarako Laguntzak daudenean mantentzen dira (17,3 milioi), iazko aurrekontuarekin alderatuta. Aurreikusita dauden beharriaztarako kopuru hori ez da inolaz ere nahikoa, kontuan izanik 2010ean, 6,7 milioi gehituta ere, dauden beharrak asebeteko gauza izan ez direla. Asmo horien eta laguntzak jasotzeko irizpide berrien iragarpenen atzean, etorkizunean eskubide subjektiboak ez diren laguntzak murrizteko borondatea egon daiteke.

**Osasunaren egoera larria:** ikuspegi publiko, estrategiko eta aurrekontu ikuspegi batetik, funtsezkoa den arlo horretan gastu publikoan Europako herrialdeekiko dagoen aldea oso azpimarragarria da, 2,1 puntu azpitik (Europakoa BPGren %6,5, eta EAEkoa BPGren %4,4), 2007ko azken datuen arabera. Espainiar estatuaren azpitik (BPGren %6,1) ere badago kopuru hori. Horrela, zenbaki gordinetan, Europako batez bestekoa izateko, osasunean 1.404 milioi gehiago gastatu beharko lirarteke. Aldiz, aurtengo gastua 3.400 milioi direla kontuan hartzen badugu, iaz baino %3,5 gutxiago dago, eta BPGean iaz baino 0,4 gutxiago. Begi-bistakoa da sail horretan gertatzen ari den gainbehera eta horren egoera larria.

Horretaz gain, aurten murrizketa asko eta oso nabarmenak gauzatzen ari dira. Adibidez, asteburuetan lehenengo arretaren berrantolaketa bezalaxe aurkeztu den plangintzak asteburuetan osasun zentroetan pediatria zerbitzu barik geratzea ekarri du. Era berean, hainbat osasun zentro itxi egin dira, eskualde batzuetan osasun zerbitzuaren irisgarritasuna zailduz eta EAG-PACen langileen lan baldintzak okerragotuz.

Bestalde, sailburuak argi utzi du ez duela inongo asmorik itunen bitartez egiten den zerbitzuen pribatizazioarekin amaitzeko; izan ere, aurten 253 milioi bideratuko dira azpikontraturiko osasun zerbitzuetarako. Ildo berean doaz sailak egindako iragarpen batzuk ere; hala nola, arreta presentziala era birtualean artatzeko azpikontrataturiko den O-sarean sistema, pediatriaren arreta zazpi urtera jaisteko erabakia eta errezeten kopagoa. Hala, arestian aipaturiko beste guztiekin batera, kalitatezkoa eta unibertsala izan behar den osasun zerbitzu publikoaren kontrako eraso zuzenak gertatzen ari direla adierazten da.

Baina murrizketak giza baliabideen arlora ere heltzen dira. Era horretan, 2011 urterako lan eskaintza publikoa 2.614 lanpostura mugatzen da. Zenbaki hori txikiagoa da Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorrean sinatutakoa baino: 1.200 lanpostu gutxiago. Zehazki, gobernuak sinatu zuen konpromisoak 2010erako 1.900 lanpostu eta 2011n beste horrenbeste jasotzen zituen. Guztira, 3.800 lanpostu berri, bi lan eskaintza publikotan.

Bada, iragarritakoarekin, garbi geratu da 2010ean egin ez den lan eskaintza ez duela konpentsatuko 2011koak, 2.600 lanposturen eskaintza oso urrun geratzen baita hitzartutako 3.800 horietatik.

**Etxebizitzaren auzia;** 2011ko aurrekontu-proiektuan jasotako zuzkidura 162,2 milioi eurokoa da, iaz baino 12,9 milioi gutxiago eta BPGren %0,24. Zenbaki oso ez-nahikoak, dagoen eskaria eta premia kontuan hartuta. Gainera, zenbaki gordinetan, kopuru hain urria izateko 2005 urteraino egin behar dugu atzera, eta BPGean antzeko pisua duen aurrekontua topatzeko, berriz, 2002 urteraino. Bestetik, jabetza da, oraindik ere, gobernuaren apustua. Etxebizitza Plan Zuzentzailea eta Etxebizitza Legea Legebiltzarrerara ekartzeko gauza izan ez den arren, aurrekontuen legean, hamargarren xedapen gehigarrian, etxebizitza arloan berme eta konpentsazioko funtsa sortzen du. Funts horren helburu nagusia da sustatzaile pribatuei diru sarrerak ziurtatzea, babes ofizialeko etxebizitzak jabetzan egiten dituztenean.

**Lurralde ereduak;** lehengo eta gaur egungo gobernuak ezartzen ari diren lurralde antolaketa ereduak aurrekontuetan ere bere isla du. Azpiegituren kasuan, lurralde desantolaketa agerian geratzen da. Garraio azpiegituraz josita dagoen lurralde txiki honetan (7.000 m<sup>2</sup>), aurrekontuetan apustu garbia zein den argi ikusten da: Abiadura Handiko Trena (298 milioi), Pasaiaiko Kanpo Portua edota Hondarribiko Aireportua bezalakoan alde ere egiten da. Azpiegitura horiek inguruarekiko duten eragin suntsizaitetik aparte, indarrean dauden Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan ez daude jasota, gaur egun gauzatu nahi dituzten bezalaxe.

Eztabaida sozial barik, eta ondo planifikatua dagoen lurralde eredu desantolatu baten bidez, eskualdeak erdigune ekonomiko sozialetik kendu dituzte, "Euskal-Hiriaren" hiriguneen ordez. Artezpideen inguruan lurralde antolaketari buruzko eztabaida sakona zabaltzea premiazkoa da lurralde urria duen herri batean. Eztabaida hori zabaltzeko eta osatzen den bitartean, gelditu egin behar dira azpiegitura erraldoien egitasmo guztiak edo, behintzat, oraindik indarrean dauden artezpideek esaten dutenarekin lotzeko beharra dago.

### **Hezkuntza, Euskara, eta gure nortasun ikurretan atzerapausoak**

Hezkuntza arloan ere egoera orokorra antzekoa da. Gastu publikoan Europako herrialdeekiko dagoen aldea oso azpimarragarria da, 1,6 puntukoa (Europakoa BPGren %5,2 eta EAEEKoa BPGren %3,6), 2007ko azken datuen arabera. Berrito ere, Estatuaren azpitik (BPGren 4,3) dago kopuru hori. Horrela, zenbaki gordinetan, Europako batez bestekoa parekatzeko, hezkuntzan 1.062 milioi gehiago gastatu beharko liriateke. Aldiz, aurtengo gastua 2.660 milioi da, iaz baino %3,3 gutxiago eta BPGean iaz baino 0,3 gutxiago.

Bestetik, iazko kritika da egin beharreko lehenengoa: noranzko desegokia markatzen duten partidak ez dira zuzendu, baizik eta bikoiztu: 2011ko aurrekontuetan **A ereduko kontzertuetarako** iaz zabaldu zen partida zortzi milioi eurora igo da aurten, nahiz eta jakin A ereduak ez duela erkidegoko hizkuntza ofizial biak jakiteko balio, nahiz eta jakin A ereduko ikasleei urratu egiten zaiela hizkuntza ofizial biak jakiteko duten eskubidea. Jaurlaritzak ez bakarrik ez du ahaleginik egiten hizkuntza eredu integratzaileak lehenesteko, baizik eta erkidego honetako hizkuntza ofizial biak ikasteko balio ez duen A eredua saritu egiten du, nahiz eta jakin, gobernuko bozeramaleak eta Hezkuntza sailburuak berak hainbatetan esan izan duten legez, ez duela elebitasuna ziurtatzeko balio.

Horretaz gainera, **irakasleak elebidunak izan daitezzen bilatzen duten programek ere murrizketa** jaso dute. Bitxia da, euskal gizarteak, aitek eta amek, hezkuntzan euskararen aldeko apustu garbia egiten dutenean, Jaurlaritzak horri erantzuteko baliabideak murriztea.

**Ikasle atzerritarrek** izan litzaketen premia bereziei erantzuteko ere, aski eza da Jaurlaritzaren planteamendua. Inolaz ere ez da zuzena integrazioa bilatzen duen hezkuntza sistema gura badugu.

Maila sinbolikoan, aipagarria da hala Nafarroa Oinez nola Herri Urrats diru laguntza barik geratu izana, aurten bigarren aldiz.

Hizkuntza politikari dagokionez, alderdi bi bereizi behar dira. Bata kontzeptuzkoa da: hizkuntza politikarako helburuen artean hizkuntzen bizikidetasuna aipatzen da, hiztunon artekoa. Distantziakidetasuna da hori, eta planteamendu desegokia maila berean ez dauden hizkuntza-errealitatez dihardugulako. Jardun beharreko sozietate errealerako eginiko aurrekontua barik, maila teoriko hutsean baino existi ez daitekeen sozietatea izan dute irizpide aurrekontuok egitean.

Diru-partida zehatzei dagokienez, iazko aldaketak txarrerako izan ziren, eta aurten ez da okerreko joera hori zuzendu. Aipagarria da euskara askatasunean lelo faltsu eta engainagarria darabilen gobernuak euskaraz ikasten ari eta maila gainditzea lortzen duten ikasleentzako beka-partida %20 jaitsi izana. Berriz ere, murriztu egin da HPSren diru-partida, eta euskaltegien modulazioa bera zalantzan jarri da. Aurten ere, diru-partida zehatzei begiratzen badiegu, oro har, atzerakada da ikusten duguna: elkarteei egiten zaizkien diru-laguntzetan murrizketa dago, kasu bakarren batean izan ezik. Hizkuntza eskubideak behin eta berriro ahotan darabilen gobernuak ahaztu egiten du hemen urratzen diren hizkuntza eskubideak euskaraz jardun gura duten herritarrenak direla.

Normalizatorako urrats berririk ez daiteke espero aurrekontu hauetatik: aldaketa iragarri zigun gobernuak ez dio ekarpen propiorik egin hizkuntza normalizazioari. Iazko bidetik datoz aurrekontuok, eta iazko bidea bide txarra zen eta da. Jaurlaritzaren aurrekontuetan, euskarak behar duen bultzadarako irizpide argirik ez dago. Alderdi popularrak euskara herri honetako bigarren hizkuntza dela dio, eta horixe darie Jaurlaritza sozialistaren aurrekontuei.

Euskal Irrati Telebistari dagokionez, berriz, aurrekontu hauetatik zer kendu badago: albistegiek gobernu-ituna garatzea lortu dutela dioten paragrafoa. Izan ere, zerbitzu publiko baten albistegien helburua ez daiteke izan alderdi biren arteko ituna garatzea, ezta pedagogia egitea ere. Zer gehitu ere badago: lehenengo, euskarazko kalitatezko telebista egiteko konpromisoa berbetatik zenbakietara pasatzea; bigarren, Nafarroan ETB LTDren bitartez ikusi ahal izateko diru-partida; hirugarren, EiTbko langileen lan-baldintzak EiTbren enpresa guztietara hedatzeko, EiTbneteko lan eskaintza publikoa egin behar da.

### **Giza eskubideen ikuspegi murrizta eta aldebakarrekoa**

Giza eskubideen defentsaren eta biktimen ikuspegiaren gainean aurrerapausoak eman daitezkeela uste den bakoitzean, atzerapausoak ere nabarmenak izaten dira. Legebiltzarrean giza eskubideen gainean gobernu honen ikuspegi murrizta gainditzeko ekimenak onartu izan diren arren, ekimen horiek gero ez dute islarik izan aurrekontuetan. Eta aurten ere lehengo urteko bide beretik doaz gai horretan.

Batetik, aurtengoan ere ez da jaso **preso edo prebentzio-presoadian** dauden pertsonak bisitatzeko joan-etorrietarako familiei zuzendutako laguntzen partida, nahiz eta horretarako erabili izan den aitzakia hankaz gora bota duten epaitegiek; Euskadiko Auzitegi Gorenak berak diru-laguntza horiek erabat legezkoak direla argi utzi arren.

Bestetik, ez da jaso 2009ko abenduaren 22an aho batez legebiltzarrak egindako eskariarentzat partidarik, hau da, "Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostena" gauzatzeko. Eta kontua ez da aitzakiatzat erabiltzea txostena jada egina dagoela, Legebiltzarreko aginduan erreparazio neurriak ere eskatzen zirelako eta horrek ezinbestean kalte-ordainentzako diru-partida zabala jasotzea eskatzen duelako. Inondik inora ez da onargarria motibazio politikoko biktima horien ordaintzari zuzendutako partidarik ez aurreikustea aurrekontuetan, eta zalantza sortzen du, gobernuak Legebiltzarreko agindua betetzeko duen konpromisoaz eta biktima horiekiko dituen asmoen gainean.

Bestetik, **frankismoaren biktimak ere bigarren mailako biktimak izaten jarraitzen dute**. Memoria historikorako azterlanaren partida mantentzen bada ere, eta Aranzadi elkartearekin hitzarmena sinatu bada ere, frankismoan espetxeratuentzako partida nominala oso eskasa da, zain dauden eskari guztiei erantzuna emateko (4.000 eskari zain). Eta ez da aurreikusi ere egin bestelako partidarik "Egiaren batzordea" sortzeko, edo Lau Haizetara gogoan elkarteak memoria osoa berreskuratzeko beharrezkoak jotzen dituen ekimenentzat.

**Bake hezkuntzarako plana desagerrarazi eta, izena aldatuz, baliabide politiko partzial bilakatu du gobernu honek**, bake-heziketan alde bakarreko ikuspegia txertatuz Legebiltzarraren ia erdiaren aurka hartutako erabaki baten ondorioz. Eta horrek ere bere isla du aurrekontuetan; nabaria da gai horri lotuak dauden ekimen guztietan eta partida guztietan: ikastaroak, edukiak, elkarteei diru-laguntzak. Guztietan lehenetsi egin da irizpide politiko jakin bat, hezkuntza irizpideen aurretik, frentismoa giza-eskubideen alorreraino eramanez. Elkarbizitza adiskidetu edota elkarriketaren aldeko ikuspegia jorratzen duen bake-heziketaren autoreak eta taldeak baztertuz, bai ikas materialetatik, baita diru-laguntzetatik.

Elkarrizketaren bidezko bake eta elkarbizitza alde batera uztea bilakatu da gobernuaren asmo nagusienetakoa. Are gehiago, besterik ez eta, horixe bilakatu du “aldaketako gobernuaren ikur”, berriki Lopez lehendakariak argi adierazi duen bezala, “gobernu honek irabazle eta galtzaileen arteko bakea (bakea dei badakioke horri) bilatzen duela” esan duenean.

Azaldutako guztiagatik, EAeko 2011ko Aurrekontu Orokorraren Lege-proiektua Eusko Jaurlaritzari bueltatzea eskatzen dugu.

**Gasteizen, 2010eko azaroaren 29an**

**Aintzane Ezenarro Egurbide  
Aralar taldeko bozeramailea**